

**GABONETAKO XXX.  
IDAZLAN LEHIAKETA**

**URRETXU - ZUMARRAGA  
2018**

**B maila**

**SARITUAK**



**GABONETAKO XXX.  
IDAZLAN LEHIAKETA**

**URRETXU - ZUMARRAGA 2018**

**1.go saria**



## *Epaijeta bidegabea*

2018ko neguko egun hotz batean gelan geunden eta bat-batean atletik neska bat sartu zen. Berría zen eta oraindik ez zuen inor ezagutzen. beltzarana zen eta ezagutu gabe denok pentsatzen genuen: " Beltzarana da, ez da fidatzekoa ".

Hurrengo egunean gauza bera gertatu zen. Neska bakarrik jarraitzen zuen, inork ez baitzuen berarekin egon nahi, eta patioko ordu guztietan bakarrik zegoen banku batean eserita.

Egunak joan egunak etorri, oso triste zegoela konturatu nintzen. Kezkatzen hasi nintzen, baina beldurra ematen zidan nire beste lagunek nitaz barre egitea edota haserretzea beltzaran batekin egoteagatik. Ez nintzen ausartu.

Handik egun batzuetara, oso gustora nengoen baloiarekin nire lagunekin jolasten, eta baloia neska beltzarana zegoen tokira iritsi zen. Ni gerturatu nintzen baloiaren bila, eta neskak baloia eman zidan. Eskerrak eman eta berriro nire lagunekin jolastera bueltatu nintzen.

Hurrengo egunean, berdina gertatu zitzaigun. Baloia neska hura zegoen tokira joan zitzaigun, eta berriro ere, ni gerturatu nintzen bila.

Baloia hartu eta oraingoan ere, ezer esan gabe lagunengana bueltatu nintzen.

Egoeraz nazkatuta, patioko ordua iristean neskaren ondoan eseri nintzen eta denek oso arraro begiratu ninduten. Neska ere harriturik galdetu zidan:

- Zergatik esertzen zara nire ondoan, eta ez zoaz zure lagunekin?
- Zurekin eseritzeagatik haserretzen badira, ez dira LAGUNAK! Nire lagunak direnak poztu egingo dira zurekin egoteagatik!! Nahi al duzu nirekin jolastu? -galdetu nion.
- Noski, baina nola deitzen zara?
- Ni Irene! eta zu?
- Ni Alejandra! Zertara jolastuko gara?
- Zer iruditzen zaizu harrapaketan jolasten bagara?

Baiezkoa esan zidan buruarekin keinua eginez eta harrapaketetan jolasten egon ginen denbora luzean.

Hurrengo egunean, beste lagun batzuk ere gerturatu ziren gurekin jolastera eta banan banan barkamena eskatu zioten Alejandrari beraien jarrera lotsagarriagatik. Barkatu eta denok jolasten hasi ginen.

Zein ondo pasatu genuen! Gure bizitzako momentu onenetariko bat izan zen. Nire barnean pentsatu eta erabaki nuen:

“Aurrerantzean ez nuen inor itxuragatik epaituko, gutxiago ezagutu gabe”

# GABONETAKO XXX. IDAZLAN LEHIAKETA

URRETXU - ZUMARRAGA 2018

## 2. saria



# ASIER ETA OMAR

Udazken hotz hartako egun hartan, Asier ikastolara abiatu zenean, egun hori desberdina izango zela sentitu zuen. Arrazoirik ez zitzaion falta, izan ere, egun hartan Omar iritsi zen beraien gelara. Omar somaliarra zen eta ez zekien euskaraz. Berak "Swatiz" hitz egiten zuen, bere herriko (Bousso edo horrelako zerbaiteko) hizkuntza bat. Horrez gain, ingeles eta gaztelania apur bat ere bazekien, horregatik, irakasleak berarekin lehenengo egunetan gaztelaniaz hitz egiteko esan zion. Omarrek bere burua gaztelaniaz aurkeztu zuen, bederatzi urte zituela esan zion, bere abizena zein zen (eta nola ahoskatzen zen) eta Somaliako hainbat pasarte kontatu zizkien.

Omarrek bere burua aurkezten zuen bitartean, Asierrek inbidiaz begiratzen zion eta aurpegiak amorruz eztanda egin behar ziola ematen zuen. Hurrengo egunetan Omar Asierrekin zintzoa izaten saiatu zen, baina Asierrek bere izaera hotz eta jeloskorrekin jarraitu zuen.

Hurrengo asteak horrelaxe pasatu ziren eta beraien arteko gatazka handitzen joan zen. Baina Gabonen aurreko aste hartan gauza sinestezin bat gertatu zen: Asierrek Omarri telefono zenbakia eskatu zion, Gabonetan elkarrekin jolasteko.

Gabonetako azken egunean, Omar bere etxetik oso pozik atera zen. Berak, ordea, ez zekien Asierrek izugarritzko gaiztakeria prest zuela beretzat. Asier lehenago mendira joan zen asunen bila. Bere etxean, asunak egosi eta Omarrek edan behar zuen edarian botatzen zutena, beraien pozoia uzteko. Hartara, Omarrek edan eta hurrengo egunean izugarritzko "granoak" edukiko zituen aho guztian.

Noski horrelaxe izan zen. Asier eskailerak igotzen ari zela entzuten zituen: "zer gertatu zaizu?" "kriston nazka ematen du" eta horrelako hainbat mezu. Azkenean Asier gelara iritsi zenean Omar aulki batean eserita zegoen ahoa irekita eta denak berari begira zeuden. Orduan Asierrek disimuluz zer gertatu zitzaion galdetu zion.

Asierrek hurrengo bi asteak beste gaiztakeria batzuk pentsatzen pasatu zituen eta azkenean izugarritzko ideia bururatu zitzaion Omarri min handia emateko. Gabonetan, berari "whatsapp" zenbakia eskatu zion, horrela, mobileko kontaktuetan gorde zuen. Bi hilabete pasa zituen ziberbullying-a (sare sozialen bidez burla edo iseka egitea) egiten, anonymous-en izenean.

Bi hilabete haietan zehar, Ikastolan, Omar oso minduta ikusten zuen. Orduan, konturatu zen Asier zer nolako mina sortzen ari zitzaion. Baina beti dena ondo egiten zuela uste duten horietako pertsona bat zen, beraz segituan pasa zitzaion errukia.

Egun hartatik aurrera, ordea Asier beti amets berdina edukitzen hasi zen. Dena beltz zegoen eta ahois batek "pentsatu zer egin duzun" esaten zion. Lehenengo egunetan ez zion garrantzirik eman, baina bi aste eta gero zoroa bihurtzen hasi zela pentsatu zuen, beraz konponbide bakarra norbaiti esatea zela erabaki zuen.

Behin erabakia hartuta, Aritzi, bere lagun onenari kontatu zion eta zer egin galdetu zion. Honek onena Omarri kontatzea zela esan zion. Asierrek berriz, irakasleari kontatuko ziola erantzun zion, nahiz eta Omarrek irakasleari kontatzea kezkatu.

Asierrek Omarri atsedenean berekin hitz egin nahi zuela esan zion. Jolas-ordua iristean Asierrek Omarri komunera joateko eskatu zion, berarekin hitz egiteko eta dena kontatu zion. Orduan, Omar haserretu eta oihu egingo ziola uste zuen. Baina ez. Honela erantzun zion: "Ez dizut ezer egingo, Somalian esaten genuen norbaitek zerbait txarra egiten zuenean Ama Lurra haserre zegoelako zela".

Asier erabat harrিতuta geratu zen, Omarren bihotz onagatik eta besarkatu egin zuen hau esanez: "Gaur erabaki dut hau ez dudala gehiago egingo". "Hori espero dut" erantzun zion Omarrek eta biak barrezka joan ziren.

Asierrek egun hartan erabaki zuen, inoiz ez dela ona besteen minaz gozatzea.

Gogoratu; neska edo mutil, beltz, zuri, asiar edo beste edozein arraza berdín du.

# GABONETAKO XXX. IDAZLAN LEHIAKETA

URRETXU - ZUMARRAGA 2018

## 3. saria





## EGUN HARTAN ERABAKI NUEN EZ NUELA GEHIAGO HALAKORIK EGINGO

Nerea, hamar urteko neska bat zen. Lagun asko zituen, baina lagunak nazkatzen hasita zeuden bere jarreraz. Bere lagunekin kalera irteten zen bakoitzean arazoak zituen, beti bilatzen zuen edozein tontakeria norbaitekin haserretzeko eta lagunak banatzeko. Oso giro txarra sortzen zuen beraien artean eta bera oso protagonista sentitzen zen.

Gabonetako oporrak iritsi ziren eta beti bezala, lagunak elkarrekin kalera irteteko gelditu ziren. Oraingo honetan ere, Nerearen erruz denak banatuta eta haserre zeuden beraien artean, eta azkenean denak etxera joatea lortu zuen. Nerea lasai zegoen, lagunak beti barkatzen ziotelako, baina bere kezka Olentzerok opariak ez ekartzea zen, bazekielako oso gaizki portatzen ari zela beraienkin.

Olentzero etortzeko eguna iritsi zen, eta eskatutako opari guztiak han zeudela ikusi zuenean saltoka eta barrezka hasi zen, hori baitzen bere kezka bakarra.

Zorion horrek gutxi irauten zion, bere lagunak oraingoan ez ziotelako barkatu. Ez zuten berarekin gelditu nahi eta deitzen zituen bakoitzean, erantzun berdina jasotzen zuten:

- Nahikoa da Nerea, irteten zaren bakoitzean, denok haserretzea lortzen duzu eta gainera ez dizu axola! giro txarra baldin badago, alderantziz, zoriontsu sentitzen zara egoera horrekin!

Nerea izutzen hasita zegoen eta galdutakoa ulertzen hasi zen, benetan garrantzitsua zena lagunak zirela eta ez jostailuak. Arazoa konpondu nahi zuen eta lagunekin gelditu zen gauzak konpontzeko. Egundako egon ziren elkar ikusi gabe eta zaila izango zela bazekien, baina aurrera egin zuen.

Azkenean lagunak barkatu egin zuten eta Nereak bere amari gertatutakoa azaldu zion esanez:

- Ama, EGUN HARTAN ERABAKI NUEN EZ NUELA GEHIAGO HALAKORIK EGINGO, lagunik gabe gelditu nintzenean eta bakardade izugarri hori sentitu nuenean. Orain badakit zer den garrantzitsua, lagunak dira! eta ez opariak, lagunak baitira oparirik onenak!

**GABONETAKO XXX.  
IDAZLAN LEHIAKETA**

**URRETXU - ZUMARRAGA 2018**

# **Aipamen bereziak**



## NIRE IRUDIMENETAKO GABONAK

Ni, Yanire izeneko neşkatxo bat, zortzi urte nituenean, Olentzerori karta idatzi nion egunean, ez nintzen konturatu berrogeita hamar gauza baino gehiago eskatu nituela.

Orduan, nire aitak esan zidan ezin nituela hainbeste gauza eskatu, ezer ez zuten umeengan pentsatu behar nuela eta ni oso zoriontsua nintzela ahal nituelako gutxienez Gabonak ospatu. Nire logelara joan nintzen haserre bizian dena eskatu nahi nuelako niretzako bakarrik, baina, ordu erdi bat eta gero, haserrea pasatu zitzaidan eta pentsatzen hasi nintzen aitak agian arrazoia zuela.

Azkenean, erabaki bat hartu nuen urtero Gabonak oparirik gabe ospatzea beste umeek ere Gabonak ospatu behar zituztelako eta nik oso gauza garrantzitsu bat nuelako: Gabonetako espirituak. Eta erabaki nuen ez nuela inoiz spiritu hori galduko.

Hurrengo egunean esan nion nire aitari ez nuela ezer eskatu behar hori izan zela nire erabakia. Eta Olentzero-bezperan ohar bat iritsi zitzaidan etxera. Olentzerorena zen eta bertan jartzen zuen ondo portatu nintzela eta horregatik oso opari berezi bat izango nuela. Eta hurrengo egunean goiz-goiz jaiki nintzen ohetik ea opari berezi hori ekarri zidan ikusteko. Baina ez nuen oparirik ikusi baina halako batean balkoitik argi berezi bat zetorrela ohartu nintzen, hurbildu eta bertan zegoen bera. Ezin nuen sinistu. Esnatu nintzen eta dena amets bat zela konturatu nintzen. Ametsak hauxe erakutsi zidan: ez nuela bakarrik niregan pentsatu behar, beste ume askok ere laguntza behar dutelako eta Gabonak zer diren gutxienez ere jakin behar dutelako.

“Eta, egun hartan erabaki nuen ez nuela berriro halakorik egingo”

# EGUN HARTAN ERABAKI NUEN EZ EZ NUELA BERRIRO HALAKORIK EGINGO

Kaixo mire izana Nerea da, orain dela denbora asko gertatu zitezidaren istoriak kontatzea gustaduko litzaidake, hau gertatu zitezidarean zortzi urte mituen baima orain hogeita hamaikabi urte ditut.

Txikia mimitzearan mire familia behartsua zen mire aita eta mire ama ia ez zeuden etxean lanarengatik; hilaren buketan dirua justu, justu iristem zitzagun, gainera, inoiz ez mimitzen oparretara joatem, baima zoriontsua mimitzen Gabonetan izen ezik.

Gabonetan mire agonia ez zen mire lagunemak bezelakoa, ez gurek gabonetako zuhaitza eta opariak beti arropa edo zapatak izatem ziren. Egubeti egunecan beti mire lagunak jostailuekin ateratzen ziren keatera, eta miri amonua erratem zidan ez muelako jostailurik erakusteko.

Inisi zen eguna. Goizean urtero bezala buserritorrez jotzi mimitzen, abarkak jarri eta gero plazaerantz abiatu mimitzen; inisi mimitzearan mire lagun guztiak pozik, zeuden, baima mi ez, mi kokoteraino megoem Gabonetaz. Kalejira egin eta gero lagunak korro batean bildu ginen, denak pozik zeuden mi izan ezik, konturatu zirenean esan zidatem:

- Zer gertatzen zaizu Nerea?

- Zer gertatzen zaiden? Olemtzeri ez da benetazkora, magia ez da existitzen, iratxoak eta gaitzagarriak ezta ere !!!

Nire lagunen aurpegia ilusiter mailkoak etorri zitzaizkidaren lagira.

Denak friste zeuden Gabonetako magia kendu niem eta, beraz, etxera joan mimitzen korrika eta meguerez.

Etzero. inisi miltzemeam mire. oheam etzarn miltzem da lo geratu  
miltzem.

Esoratu miltzemeam bazkaltzeko ordua zem, triste mengoem, ez  
neulam inurago gogorik gawa iristeko, total!!

Betillo operiak egingo zizkidatem. Bazkaldue eta gero mire cumomari  
lagundu nion gaverako mehaia jartzem. Kamtel amema jami  
gemuem, turroialk prestatu gemituem eta gero mire cumomarekin  
Sokaseldiam geratu miltzem.

Familia bildu gimemeam afaltzem hasi gimem, ondorem, Garbom  
kamtel abestem hasi gimem. Nekatu miltzemeam ohera jocum  
miltzem, oso triste mengoem eta ezin muem lo egim, eta  
irakurtzem hasi miltzem. Begiak itxi behar mitumeam mire izema  
emtzum muem egongoem eta korrika jcam mire aita zela  
pernitsatu.

Geruratu miltzemeam konturatu miltzem ezetz, ez zem mire  
aita, Olenzero zem ez zem amela bai! Olenzero miregema

zizendu zem esamezi

- Nereu bemezakoa meiz, bengua goazem zure lagunei magia itzultzeru.  
Ondorem, ourteko urteko botak jantzi mitzem, orein dela bi urte. Olenzerak  
oparitutako txamurrey, maski! eta Olenzerorekin jocum miltzem. E.GUN  
HARTAN ERABAKI NUEN EZ NIRELA BERRIRO HALA KOREK  
EGINGO NIRE LAGUNEI.

Bemo mi bemoa, abenduak hogeita lau da eta Olenzerorekin  
geratu meiz.

## *ESAN "EZ" ESKOLA JAZARPENARI*

Duela bi urte, bazegoen neska koadrila bat Nerea, Enara eta Izarok osatua. Beraiek Lekeitioko Likai Ikastetxean ikasten zuten, 5.mailan, hau da, 10 urte zituzten. Beraien gelan Lorea izeneko gelakide batek ikasten zuen.

Loreak ez zuen lagunik eta beraien koadrilan sartu nahi zuen. Oraingoz onartzen zuten. Gelara iristen zenean, ordea, Loreak oso arropa zatarra zuela, eta beraiangana arropa horrekin ez gerturatzeko eskatu zioten. Lorea negarrez joan zen komunera eta andereñoak galdetu zion:

- Ondo al zaude Lorea?
- Bai – erantzun zion Loreak gezurra esanez.

Jolas-ordua iritsi zen, eta koadrilak esan zion Loreari:

- Gurekin jolastu nahi al duzu baloiarekin?
- Bai, eskerrik asko! – esan zuen Loreak.

Baina baloiarekin jolasten hasi orduko, berari min emateko, baloia botatzen zioten. Horrek, Loreari min asko eman zion eta besteak parrezka ikusterakoan berak irriparre faltsu bat atera zuen. Lorea minduta zegoen, baina beraien laguna izaten jarraitu nahi zuen.

Hurrengo egunean, koadrilatxoak, beraiekin parkera joatera gonbidatu zuten, baina Nerea, Enara eta Izaro ez ziren azaldu. Loreak denbora pila bat galdu zuen beraien zain. Etxera iritsi orduko Lorea bere gelan sartu zen eta komentario itsusiak bidaltzen hasi zitzaizkion whatsapez: "oso zatarra zara", "txerri baten aurpegia duzu", "oso lotsatia zara", "oso gaizki orraztuta zoaz", "ez zaigu zure arropa gustatzen", etab.

Loreak oso minduta jarraitzen zuen eta ikastolan eta parkean gertatutakoa bere gurasoei kontatzea erabaki zuen. Bere gurasoak irakasleekin hitzegitera joan ziren eta andereñoa Nerea, Enara eta Izarorekin Tutoretza gelara gauzak argitzera joan zen. Errieta handia jaso zuten eta egindako ez zela zuzena esan zien irakasleak.

Hiru lagunak egin zutena oso gaizki zegoela onartu zuten eta egun hartan halakorik ez zutela berriro egingo erabaki zuten.

Hortik aurrera, laurak elkarrekin jolasean ibiltzen ziren, eta gertatutakoa ikusi ondoren, astero ikastolan eskola jazarpena ekiditeko klaseak antolatu zituen ikastetxeak, horrelakorik berriro gerta ez zedin.

## EGUN HARTAN ERABAKI NUEN EZ NUELA BERRIRO HALAKORIK EGINGO

Bazen behin, Jon izeneko mutiko bat.11 urte zituen eta kirolak gustatzen zitzaizkion. Txikileak, plastikozko botilak, patata-poltsak... sortzen zuen zabor guzti-guztia, lurrera botatzen zuen. Nahiz eta kale garbitzaileak dena jaso, zikin pila bat botatzen zuen lurrera. Jende guztiak, mundua kutsatzen ari ginela esaten zion. Ikastolan, kalean, telebistan... toki denetan esaten zioten. Baina Joni, ez zitzaion bat ere axola.

Jada, Gabonak gerturatzen ari ziren eta Jon, irrikaz zegoen, Olentzeroren opariak jasotzeko. Hainbat gauza eskatu zituen: jokoak, bizikleta etab. Berak, zaborra lurrera botatzen jarraitzen zuen. Azaroa bukatu zen eta abendua iritsi zen. Gabonak geroz eta gertuago zeuden. Abenduak 24ko gauean, irrikaren irrikaz, lotaratu egin zen, Olentzero etorriko zelakoan. Orduan amesten hasi zen. Bere ametsean, bera azaltzen zen zabor artean. Mundua zaborrez estalita zegoen, baina Joni ez zitzaion asko axola. Hurrengo egunean, ez zuen ezer ere ez aurkitu arbola azpian. Berriro ere lotara joan zen, amets berdina eduki zuen, eta ez zitzaion asko axola. Bigarren aldiz, ez zuen ezer ere ez aurkitu zuhaitz azpian.

Jon, berriz ere lotaratu zen, amets berbera eduki zuen... Baina, axola zitzaion. Dena zaborrez estalita, ez zegoen bizirik. Eduki ahal zituen ondorioak ikusita, aldatzea erabaki zuen. Esmatu, eta orduan bai, opariak bazeuden. Bere familiarekin gustura ospatu zuen gabon eguna. Hori bai, ez zuen berriro zaborrik lurrera bota.



EGUN HARTAN ERABAKI NUN EZ NUELA BERRIRO HALAKORIK  
EGINGO

Duela unte batzuk, aiton-amonekin, asteburua hasitzera joan nintzen Ennioxana. Nene izena Jon da eta. Berainen bizi naiz. Oro gutuko dot Ennioxana joateaz batez ene udanan, bentako begunekin igentekura joateko. Aiton-amonekin kantetan jolastea abegin dut bereziki. Aitona. Joxek tramiak egiten dituenean, nola hasemetzen den amona. Mania!

Udako egun hartan, berro azko egiten zuen eta amonak aitonari kotxea garbitzea eskatu zion. Aitonak beran duago egingo zuela esan zion, serekatzen zenean. Momentu hartan ideia bat burunatu zitzaidan nik garbituko nuen kotxea!

Lanean hasi nintzen eta nene moduan noski, kotxea garbitzen jarraitu nintzen.

Aiton-amonak ikustean brontza ederra jaso nuen, Xalroia eta una enabril beharnean kotxea hantiekkin garbitzen banik baintzen!

lau unte nitzen eta laguntzea gatik egin nuen. Negarnez hasi nintzen, Aitonak malakoak garbitu

eta beronkoda bat eman zidan, egituran nasa  
tzitaien hasernea

"EGUN HARTAN ERABAKI NUEN EZ NUELA  
BERRIRO HALAKORIK EGINGO?"